BARREN
ELGOIBAR - 799. zenb. - XVIII urtea - 2011-10-14
TOKIKOM



# “Diseinatzaile bakarrari eskainitako estreinako museoa da munduan”

**Sara Pagola, Balentziaga museoko gerentea**

# IZANAREN IZENA

## izena duenak izana duelako

## Hitzaldi-zikloa:

### Urriak 19, asteazkena:



**"Elgoibarren, astuak *goen* eta *barren*": ekinaldi bat Elgoibarko euskararen gainean**

Hitzaldi honetan, ***Elgoibarko ahozko euskara*** liburu argitaratu berria aurkeztu nahi da herritarren aurrean. Elgoibarko euskararen ezaugarri nagusietatik ibilbide bat egingo da hitzaldian, herritarren ahoetatik jasotako berba, esaldi eta istorioak erabiliz.

Hizlaria: **JESUS MARI MAKAZAGA,**
Filologoa eta EHUko irakaslea.

### Urriak 26, asteazkena:



***"Amaia, debekatuta zaude!" euskal izen-abizenen historia.***

Hizlaria: **MIKEL GORROTXATEGI,**
Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko idazkaria.

Bi hitzaldiak **Kultur Etxeko hitzaldi-gelan** izango dira, arratsaldeko **19:00etan** hasita.

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

ELGOIBARKO UDALA · EUSKARA

elgoibar bizi-bizixa!

# Asto-kaka

Honez gero denok jakingo duzue zer den Asto-kaka. Asto ederra bestela, orain artean horren inguruko ezer aditu ez duena! Kaka dezente eman dugu eta. Asto gainean kalean zehar bandoa zabaltzen igarotzea bakarrik falta izan zaigu. Baina ez da gutxiagorako. Ez dizuegu gezurrik esango. Zuen beharra daukagu, eta halaxe esango dizuegu ondo jakin dezazuen.

Sarritan esan izan dugu zuek zaretela BARREN. Zuek betetzen baitituzue paper zuriok kantuz eta kontuz. Oraingoan ere, kontu berdina dakarkigu kantuan. Santa eskean urtero kantatu ohi dugun moduan... Ez gaude oso aberats diruz, ezta ere oinetakoz... eta horregatik astoak, horregatik kaka, eta horregatik gainera etorri zaigun asteburu eder hau. Dirua behar dugula jakinekoa den arren, ez dizuegulako dirua ezerren truke eskatu nahi. Eta eskua eskean jarri dugun lekuan, eskaintza ere ez zaizuelako faltako gurean. Helmuga dirua bada ere, ondo pasatu nahi dugulako horren bila. Eta zuoi, astero zuen etxeko ateak zabaltzen dizkiguzuenoi, egiten duzuena eskertuz, eskatu nahi dizuegulako.

Kaka nahikoa eman dugu dagoeneko beraz alferrik luzatzeak ez du merezi. Hemen duzue gonbidapena; badakizue non gauden.




Asier Orbea

*“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com*

**Dirua behar dugula jakinekoa den arren, ez dizuegulako dirua ezerren truke eskatu nahi.**

SAN PEDROKO IGOEREN (bizikleta eta rolleski) ARGAZKIAK



www.elgoiBARREN.net

Egin klik eta ikusiko duzu

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

# LAGUNAK PILOTA ESKOLA

## PILOTARIEN FABRIKA



**75 pilotari ingururekin hasi du denboraldia Lagunak Pilota Eskolak: 65 esku pilotan arituko dira eta gainerako hamarrak orain gutxi sortu zuten palako sekzioan. Hiru entrenatzaile ditu klubak eta ahalegin berezia egiten dute horiek gaztetxoekin egin beharreko lanean. Sabino Lizarralde klubeko presidentearen berbetan horixe da klubaren helburu nagusia: "Harrobia sustatzea eta gaztetxoak pilotara erakartzea". Pilotarien fabrika izan nahi du Lagunak Pilota Eskolak.**

**Asier Orbea**

Gipuzkoako Txapelketan buru belarri dihardute Lagunak taldeko pilotariek, baina urtean zehar makina bat txapelketatan parte hartzen dute: Udaberri Txapelketa (urtarriletik apirilera), San Anton Torneoa (urtarrilean), Debarroko Txapelketa (otsailetik ekainera), Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketa (maiatzetik aurrera), Plaza Handiko frontoian jokatzen den Lagunak pilota txapelketa, e.a. Txapelketa horietako batean pilotariren bat besteen gainetik nabarmentzen bada prestigio handiagoa daukaten txapelketetan (Zaldibar, Berriz, Elgeta, e.a.) parte hartzeko dei egiten diete. "Gurea baino klub handiagoak pilotari onenak arrantzatzeko prest egoten dira", azaldu du Sabino Lizarraldek. "Klubak jauzi hori egiteko ahal duen laguntasun guztia emango die, baina harrobiko lanean zentratzen gara", gaineratu du.

Eskola Kirolean aritzen diren 28 pilotari daude une honetan pi-

lota taldean, baina kadete mailara ailegatzen direnean eten bat dagoela diote, askok beste kirol batzuetara alde egiten baitute. "Gogorra da 40 bat pilotarirekin lanean aritzetik zortzi edo hamarrekin geratzea. Ez daukagu argi zergatia. Eskuek asko sufritzen dutelaeta, kirol gogorra dela diote batzuek. Ez dakit hori den arrazoi bakarra, besteak beste, beheko mailetan pilota bigunekin ibiltzera behartzen gaitu-eta federazioak. Gaurko umeek kirol eskaintza handia dute eta ondo begitantzen zait denak probatzea", azaldu du makina bat urtean entrenatzaile lanetan aritu den Juan Mari Elustondo pilotazaleak. Pilotari izateko dohain handiak zituzten pilotari bat baino gehiago pasa dira gaztetxotan bere eskuetatik, "Titinen estiloko pilotari ikusgarriak ere bai tartean", dio. Adin batetik aurrera, baina, pilota laga eta beste kirol batzuetara joaten dira. "Penagarria da. Futbolera joaten dira, bi edo hiru urte egin, gehienak ez dira erregionaletik pasatzen, eta akabo! Horiek ez dira berriz pilotara itzuliko. Beti gaude Messi edo Irujori begira, onenei begira, eta nagusiok daukagu horren errua. Gure seme-alabak gustuko kirolean aritzea ez da nahikoa". Geratzen direnek, hala ere, pilotan jokatzeko ilusio handia izaten dutela azaldu dute Lizarraldek eta Elustondok. Kadete mailan egiten diete federatu fitxa eta sasoi horretan hasten dira beste herrietako pilotarien aurka jokatzen eta klubeko arropak janzten. Takoak zelan jantzi behar diren ere irakasten diete. "Ilusioz gainezka egoten dira pilotariak eta eurekin lan egitea erraza da", dio Lizarraldek. Ildo horretan, entrenatzaileen gaiak ere kezkatuta dauzka taldeko arduradunak. "Gaur egun klubak dituen hiru entrenatzaileek lan handia egiten duten arren, urte asko daramatzate eta kezkatuta daude lagatzen dutenean erreleborik izango duten ala ez".

## 18.000 euroko aurrekontua

Lagunak Pilota Eskolaren urteko aurrekontua 18.000 euroren bueltan dabil. Gastuei (pilotarien joan-etorriak, fitxak, materiala, e.a.) aurre egiteko Udaletik eta erakundeetatik jasotzen dituzten diru-laguntzez gain, makina bat lan egin behar izaten dute aurrekontua osatzeko. Orain gutxi, esaterako, errifak atera dituzte eta Lau t'erdiko finalerako bi sarrera eta bina lagunentzako bi afari zotz egingo dituzte azaroaren 19an. Urtarrilean antolatzen duten San Anton Torneoko sarreretatik eta Ikastolako frontoian jartzen duten tabernatik ere ateratzen dute dirua. Babesle lanak egiten dituen Lanbroa tabernari eskerrak lortzen dituzte arropak.

## San Anton Torneoa

San Anton Torneoa, Lagunak Pilota Txapelketa eta Errosario jaietako pilota jaialdia dira Lagunak Pilota taldeak antolatzen dituen txapelketak, eta Sigmako txapelketaren antolakuntzan ere laguntzen dute. Lanik handiena, baina, San Anton Torneoak ematen die. Afizionatu mailan puntan dabiltzan pilotariak ekartzen saiatzen dira. "Momentuko pilotari onenekin zerrenda bat egiten dugu lehenbizi. Askotan gertatzen da, baina, lotuta geneuzkan pilotariak azken orduan jaustea. Lehen afizionatu mailako pilotari onenak etortzen ziren Elgoibarrera, baina azken urtetan konpetentzia handia da. Asko ugaritu dira txapelketak eta kalterik handiena sasoi berean Federazioak antolatu duen Elite mailako txapelketa batek egin digu, federazioak deituz gero hara jo beste erremediorik ez dute-eta pilotariek. Haiek dute lehentasuna.

**San Anton Torneoa, Lagunak Pilota Txapelketa eta Errosario jaietako pilota jaialdia dira Lagunak Pilota taldeak antolatzen dituen txapelketak**



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
Faxa: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

**Argitaratzailea:**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

**Laguntzaileak:**




BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.com*.

## San Lazaro Egoitzaren izenean

San Lazaro Egoitzaren izenean, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu, urtean zehar, ekitaldiak, jaiak… antolatzen laguntzen diguten pertsona, talde eta erakunde guztiei.

Bidenabar, Nagusilan elkarteko boluntarioek, bereziki Elgoibarko taldekoek, egiten duen lan ordainezina eta eskuzabala azpimarratu nahiko genuke, baita hainbat elkartek gure egoiliarrekin izan duten bihotz-zabaltasuna ere. Bereziki, ondorengoak aipatu nahi genituzke: Maalako jai batzordea, Errosario kaleko jai batzordea, Udalaren Musika Banda, I. Bereziartua Musika Eskola, Herri Eskola, Duo Plaentxi, Argia taldea, Parrokiako Abesbatza, Miski-Peru, Azahar taldea, Elgojaiotza, San Bartolome Parrokia eta Anateusk.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu, sarri askotan, bakarka eta isilpean egoitzarekin elkarlanean diharduten beste hainbati.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi Udalaren sailetako langileek, gure lana egin ahal izateko, ematen dizkiguten errastasun guztiak.

Gure eskerrona horientzat guztientzat.

**San Lazaro Egoitza**

## Elgoibarko EAJ-k AHT-ri

Duela pare bat aste Udaletxeak Euskal Y-aren alde mozio bat gehiengo onartu zuen, proiektu hau estrategikoa dela berretsiz, euskal gizartearen garapen ekonomiko eta ongizate sozialaren lagungarri. Era berean, besteak beste Euskal Y-aren lanak gelditzeko eskatzen zuen beste mozio bat bertan behera utzi zuen gehiengoz.

EAJ-k, euskal gizarteak eskatzen duen bezala (hala adierazi dute Eusko Legebiltzarraren gehiengoak sarritan eta Gipuzkoako Batzar Nagusien gehiengoak azken egunotan), proiektu honek aurrera sendo egin dezan lanean jarraituko du.

Ezagutzen ditugu beste zenbait adibide, non ustez ingurugiroaren defentsari lotutako kolektibo ezberdinek, politika nahastuz eta beti tendentzi politiko berdinarekin, beste zenbait azpiegituren eraikuntzaren aurka sutsuki agertu diren.

Gogoratu Leitzarango autobidea, Bilboko Metroa edotа Guggenheim museoa. Non daude gaur egun ikarragarrizko arrakasta duten proiektuak bere garaian faltsukeriz sutsuki kritikatzen zituzten horiek?

Euskal Y-a egina dagoenean, ez al da inor pittin bat gorrituko hainbeste salatutako azpiegiturak burutuak direnean lasai lasai erabiltzen dituenean?

EAJ-ren funtsezko leloa zera da: “Euzkotarren aberria Euzkadi da”. Euskadi izan da gure helburua BETI. Irmo mantentzen gara horretan, nahiz eta beste zenbaitzuk atzo gauza bat esan, gaur iritziz aldatu eta bihar, memoria ahularen poderioz, ahaztu esandako eta egindakoak eta gurekin batera Iruñara abiatu Leitzarango autobidetik, Bilbon Metroz ibili eta etorkizunean Euskal Y-a erabili.

Amaitzeko, irainik ez!! Gu ez gara kaikuak. Zorionez, Elgoibarko herriaren gehiengoaren konfiantza duen alderdi abertzale bat gara. Etorkizunak esango du nor den benetako kaikua.

**Elgoibarko EAJ-PNVko UBB**





Jose Luis Azpillaga

Astebukaera honetan izango dugu asto-kaka jokoa Barrenen alde, eta, Zozoak beleari-rako ideia bila, kuxkuxean ibili naiz Interneten asto eta kaka berben inguruan. Hitz arruntak izanda, ez da harritzekoa esamolde eta atsotitz ugari aurkitzea astoa edo kaka osagai dituztenak. Gainera, beren adierazkortasunari esker, ondo baino hobeto datozkit berbok euskaltegiko ikasle eta irakasleon eguneroko errealitatea deskribatzeko. Esate baterako:

**“Ez da harritzekoa esamolde eta atsotitz ugari aurkitzea astoa edo kaka osagai dituenak”**

Kakalarria. Garai honetan euskaltegietako irakasleok kakalarriak jota ibiltzen gara taldeak antolatu eta kurtsoa behar bezala hasteko. Ikasleek, berriz, geroago izan dute kakalarria: azterketa garaian-eta.

Astolana. Hori da ikasleek maiz egin behar izaten dutena aditzak eta sinonimoak ikasi edota idazlanak txukun samar egiteko. Baita irakasleok ere, batzuetan, klase guztiak ondo prestatu eta ikasleei behar bezala laguntzeko. Bakoitzak bere astoari arre egin behar dio.

Kaka-nahastea. Zenbat aldiz esan ote digute ikasleek kaka-nahastea dutela buruan? Abesti ezagunak dioen moduan: Ez da hain fazila!

Kakatara bota. Sarritan izaten dute ikasleek dena kakatara botatzeko gogoa; esaterako, ahaleginak eginda ere, emaitzak ez direnean nahi bezalakoak. Horrelakoetan, lanak izaten ditugu irakasleok geure ikasleak animatzen.

Txori-kaka edo Euli-kaka. Nolako garrantzia ematen zaion ikusita, batzuetan hala ematen badu ere, euskara ez da txori-kaka guretzat; ezta euli-kaka ere ikasleen ahalegina euskara ikasteko.



Amaia Larrañaga

Hau da asto eta kaka pila, Jose Luis !

Asto halakoa! Astoa galanta! Kaka zaharra! Kakatara bota!

Bi hitzok erabiltzen ditugunean, ez dakit zer dela-eta, baina, gehienetan, kutsu gutxiesgarriz erabiltzen ditugu. Zergatik ote fama hori astoek? Eta kakak?

Elgoibarko Izarrakoek, ostera, bi hitzok elkartu eta jokoa asmatu dute Barren komunikazio proiektua diruz laguntzeko. Badakigu ditxosozko krisiak alde guztietan daukala eragina, eta gure herriko astekaria ere harrapatu du.

Guk, euskaltegietan dihardugunok, gure lan-tresnetako bat dugu Barren eta gure ikasleei ere berehala jakinarazten diegu honelako aukerak aprobetxatu behar dituztela (hurbilekoa, protagonista gehienak ia ezagunak, doakoa eta, gainera, euskaraz) euren ikas-prozesuan lagungarri delako.

**“Zergatik ote fama hori astoek? Eta kakak?”**

Kritikak kritika, ostiraletan buzoira helduko ez balitzaigu, zeinek ez ote luke falta somatuko? Sarri, beste mila konturekin gertatzen zaigun bezala, ez gara konturatzen zer daukagun, baina falta denean bai, orduan hasten dira negarrak, baina alferrik da ura pasatutakoan presa egitea!

Hau guztia dela-eta, asteburu honetan Plaza Txikian dugu hitzordua, bai gaur, ostirala, bai bihar, larunbata, eta ez ahaztu Benitak eta Kondesak (Akeiko astoek) ametsak dituzten bezala, euskaldunok ere badugula, besteak beste, herri astekari euskalduna izatea, orain arte bezala.

Guk Barren behar dugulako; Barrenek gu behar gaituelako!

---

ESKERTZA



## JOSE MARI LARREA GARATE

2011ko urriaren 10ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Larraitz Uranga dominarik gabe baina esperientzien zakua ondo beteta itzuli da Wordskills lehiaketatik

## Korearrak izan dira domina gehien irabazi dituztenak

Wordskills London 2011Lanbide Heziketako Olinpiaden munduko finaletik etorri berriak dira IMHtik joandako Larraitz Uranga eta Juan Munin. Emaitzarekin erdizka, baina egindako lanarekin eta ikasitakoarekin pozik itzuli dira Euskal Herrira. Espainiako taldearekin parte hartu dute biek CNC Fresatzeko proban; denera, mundu osoko 19 pertsonak hartu dute parte proba horretan. Japoniako eta Koreako ordezkariak izan dira urrezko dominak eskuratu dituztenak. Izan ere, IMHko ordezkariek adierazi duten moduan, bi herrialde horietako ikasleak oso ohituta daude mota horietako probetan parte hartzera. Urangari berriz, hori egin zaio zailena. Ohituta ez dagoen makinekin eta programekin lan egin beharrak asko baldintzatu baitu IMHko ikaslea eta bere aurkariek ordea, ezagutzen zituzten aparatuak. “Estrategia bat zuten; huraxe jarraitu dute eta hor daude emaitzak” azaldu du Urangak kontuan izanik, Korea izan dela domina gehien lortu dituena; aurkeztutako 38 ikasletatik 36k lortu baitute bat.





*Ezkerrean Uranga proba batean parte hartzen. Goiko irudian Espainiako taldekideekin.*

## Emakumeen jabekuntzarako prestakuntza saioak Debegesaren eskutik

Debabarrenako emakumeen ahalduntzea bultzatzeko asmoz antolatu ditu Debegesak, Foru Aldundiaren laguntzarekin, hiru prestakuntza saioak. Antolatzaileek jakinarazi duten moduan, saio hauek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren I. Planaren baitan Debegesak sortutako emakumeen prestakuntzarako espazio berri batean daukate jatorria. Hain zuzen ere, “Emakumeak saretuz: Debabarrena eskualdeko emakumeen lidergorako gunea” izeneko espazioan.

Horrela bada, hiru saio prestatu dituzte. Debabarrenako herri ugaritan antolatu dituzte, eta tartean baita Elgoibarren ere. Lehenengoa, “Genero betaurrekoak baditugu?” izena duena, urriaren 19an izango da. Bigarrena, azaroaren 9an izango dena, “Generoa kontuan hartzen duen lidergorako zeintzuk dira behar diren erramintak?” izenez eman dute aditzera eta azkena, “Emakumeen arteko sare sozialak, aldaketarako beharrezko aliantza moduan” azaroaren 23an izango da. Guztiak arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak bitartean egingo dira Kultur Etxeko hitzaldi gelan eta ez dago ezer ordaindu beharrik parte hartu ahal izateko.

### Izen ematea

Alabaina, izena eman beharra dago tailerretan parte hartu nahi bada. Bi aukera daude horretarako: ealonso@debegesa.com helbidera idatzita, edo 943 820 110 zenbakira deituta.

Debegesak eta Elgoibarko Udaleko berdintasun sailak, bertako emakumeak hitzaldietan parte hartzera animatu dituzte.

## Zerbitzua Botikak




Gaueko zerbitzua eskainiko duen botika bat Elgoibarren egunero zabalik egotea aztertzen dihardu Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo sailak. Alabaina, erabaki horrek Elgoibar eta Deba inguruei eragingo diela adierazi du Eusko Jaurlaritzak; hau da, Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba eta Mutriku herrietan, gauez zabalik egongo den botika bakarra izango da Elgoibarkoa. Horrek nola ez, desadostasunak sortu ditu Deba eta Mutrikun bereziki, eta herri horietako Udalek adierazi dute beraien desadostasuna. Hala ere, behin betiko erabakia hartu gabe dago oraindik eta ikusteko dago zer gertatuko den.

## Omenaldia Elgoibarko odol emaileei

Urtero bezala, Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak, odola eman ohi duten zenbait herritar omenduko ditu jardun honetan erakutsi duten prestutasunarengatik. Hain zuzen ere, hogeita zortzi elgoibartar dira omenduak. Horietatik hemezortzik odola hogeita bost aldiz eman dute. Beste bi pertsonak, berrogei aldiz. Eta bukatzeko, azken zortziek, berrogeita hamar bider. Horiek guztiek, deba bailarako gainontzeko odol emaileekin batera ospatuko dute urteroko eguna, bihar, Elgetan eta bertan jasoko dituzte dagozkien diploma eta intsigniak. Era berean, meza eta bazkaria ere izango dute egunaz ondo gozatzeko.

## Jarduera Nagusientzako soinketa

Udal Kirol Patronatuak eta Udalaren Ongizate Sailak 60 urtetik gorakoei kirol-jarduera egokiak egiten irakasteko bi saio antolatu dituzte. Datorren asteko martitzenean eta eguenean izango dira saioak, 10:00etatik 12:00etara eta Mintxetako aparkalekuan soinketa egiteko dauden aparatuak erabiliko dira horretarako. Era berean, beroketak egiteko eta sistema kardiobaskularra hobetzeko ariketak egiten ere erakutsiko dute.



### Zubibai elkartearen bilera deialdia eguenerako

Zubibai Elkarteak jakinarazi duenez, auzoan gaizki inausitako zuhaitz ugari daude eta horrek sortutako arazoak aztertzeko, auzotarren arteko bilera bat deitu dute datorren eguenerako. Iluntzeko 20:00etan izango da bilera, Altzolako jubilatuen lokalean.

Zehazki gaia lantzeaz gain, auzotarren artean egingo diren zenbait bileratan eztabaidatu eta proposamen bat adostea da Zubibai Elkartekoen helburua. Ondoren, bileretara agertutako auzotar gehienak ados jarritakoan, proposamen hori udaletxean aurkezteko asmoa dute eta auzotarrek.

### Bilduk *Herri Bilkura* antolatu du eguenerako

Zergak eta tasak eta beraien ordenantzak direla-eta, gai hori herritarrekin lantzeko asmoarekin *Herri Bilkura* deitu du Bilduk. Udal-taldeak herritarrei bere proposamena aurkeztea, eta bilerara agertutakoen artean Udalean aurkeztuko den azken proposamena adostea da *bilkurari* jarritako helburua. Datorren eguenean izango da bilera, iluntzeko 19:30ean Kultur Etxeko sotoan.

### 2012ko egutegirako argazkiak aurkezteko azken egunak

Datorren astelehena, hilaren 17a da, Udalak kaleratu ohi duen Elgoibarko herriaren inguruko egutegirako argazkiak aurkezteko azken eguna. Dakizuenez, edozeinek hartu dezake parte lehiaketan eta lanak aurkezteko baldintza bakarra, aurkeztutako argazkian Elgoibar herriari erreferentzia zuzena egitea izango da.

Argazki-irabazle bakoitzak 65 euroko saria izango du. Udalak herritar guztiak animatu ditu lehiaketan parte hartzera.



# SARA PAGOLA

BALENTZIAGA MUSEOKO GERENTEA

## “Balentziaga oso diskretoa zen eta museoa handiegia irudituko litzaioke”

**Aspaldian Elgoibarrekin harreman handirik ez daukan arren, Sara Pagolak ez du bere jaioterria ahaztu, eta noizean behin etortzen da osabari bisita egitera. Baina betiko lagunekin ez du harremanik galdu, eta azkenekoz, bera bisitatzera joan ziren Elgoibartik Getariara. Izan ere, Sara Pagola Cristobal Balentziaga museoko gerentea da, eta han egin zuen bat bere koadrilakoekin. Orain dela urtebete inguru hasi zen Cristobal Balentziaga Fundazioan lanean, eta bere zeregienik garrantzitsuenetarikoa museoa martxan jartzea izan da. Orain dela hiruzpalau hilabete zabaldu zuten museoa, eta momentuz, harrera oso ona izan duela azaldu du Sara Pagolak.**

**Orain arte elikadura sektorean ibilitakoa zara. Nola iritsi zara Balentziaga museora?**
Hasieratik elikadura-munduan egin izan dut lan. AZTI-Sukarrietan hasi nintzen, kudeaketa munduan, ISO 9000 eta EFQM metodoak elikagai-enpresa handietan eta estatuan ezartzen. Horrek Buenos Airesera eraman ninduen, hemen ikasitakoa han ezagutaraztera eta erakunde bat martxan jartzera, Instituto de Calidad Alimentaria Vasco-Argentino, alegia. Hiru urte eman nituen, hango bazkidea aurkitu, lana irakatsi eta eraikinarekin batera dena martxan jarri arte. Nire ametsa Donostian, eta kultura alorrean lan egitea zen, eta, horregatik, bi lekutan bota nuen curriculuma. Horrela heldu nintzen Cristobal Balenciaga Fundaziora, orain dela urtebete. Fundazioaren kudeaketan, Museoa martxan jartzea izan da helburu nagusia; horrela, bada, azken urte honetan, oso lanpetuta ibili naiz zeregin horretan.

**Zein da zure eguneroko lana museoan?**
Oraindik gauza asko dago egiteko, museoa martxan jarri arte. Eraikinean oraindik hobekuntza edo ekipamendu batzuk jarri nahi ditugu. Antolamenduan ere dena ezartzen hari gara: iradokizunen prozeduratik hasi eta babesle-planera arte. Baina, bide batez, udazkeneko egitaraua, organigrama berria eta abar bideratu behar dira.

> **“Nire ametsa Donostian eta kultura alorrean lan egitea zen”**

**Ekainean zabaldu zenuten Balentziaga museoa. Nolakoa izan da hasiera?**
Oso ona. Hasieratik, zabaldu aurretik, komunikabideetan eta nazioartean sortu zen interesak asko harritu ninduen, eta denei erantzutea oso lan handia izan da. Dena den, ederto tratatu gaituzte. Jendearen erantzuna ere bikaina izan da, bisitari kopurua oso handia izaten ari da eta. Horri eustea izango da gure erronka, hemendik aurrera. Getariako herriak ere goitik behera aldatu du Museoarekiko zuen ikuspuntua. Orain, herritarrek parte hartzen dute, gauza berriak egiteko proposamenak ere egiten dituzte.

**Zein da museoa bisitatzen dutenen profila?**
Denetarik dago, eta denak nahastuta etortzen dira. Batzuetan, turistaren profila ikusten duzu, bermudekin eta biserarekin, eta, aldamenean, oso ondo jantzita doan jendea. Badago publiko mota bat, Balentziaga museora etortzeko dotore janzten dena. Inguruko jende nagusia, modista izandakoa edo Cristobal ezagutu zuena, gogo handiarekin etortzen da erakusketa ezagutzera. Nazioartean hemen baino ezagunagoa eta mirestuagoa izan zen Balentziaga, eta, agian horregatik, bisitarien % 12 Frantziatik etortzen da. Beste bitxikeria bat: hiru belaunalditako familia osoak ikustea ere oso normala da, hau da, aitita-amamak, gurasoak eta umeak. Aurtengo Zinemaldian izan den Catherine Deneuvek ere Museoa ezagutu nahi izan zuen, eta katalogoak hartu zituen, bere lagun diseinatzaileei opari gisa eramateko. Epaimahaiko lehendakari Frances Macdorman estatubatuarrak ere interes handia erakutsi zuen Museoa ikusteko. New Yorkeko udazkeneko erakusketa ere ikusi zuen, eta ezin genuen beiraarasetatik atera…

**Turismoa handitu al da museoari esker?**
Ba bai, hori esaten digute turismo-bulegotik, dendetatik eta jatetxeetatik. Lehen esan dudanez, herria oso pozik dago. Udan eguraldi oso txarra izan dugunez, Zarauzko ostalariak kexu ziren; Getariakoak, ordea, oso pozik.

**Museoaren eraikina bera ere berezia da. Azalduko diguzu apur bat zein ezaugarri dituen eraikinak?**
Eraikinak oso eremu desberdinak ditu: alde batetik, jauregia eta, bestetik, eraikin berria. Jauregia aldi baterako erakusketak egiteko ari gara prestatzen, eta, denborarekin, dokumentazio-zentro bat ere egongo da bertan. Eraikin berriak ere hiru arlo oso bereizi ditu: eraikin didaktikoa (eskola izango dena), museoa bera eta eraikin administratiboa, errestaurazio-lantegia barne duena. Era berean, museoak leku handia du beheko solairuan: sarrera, denda, erabilera anitzeko gela (kontzertuak, afariak, zinea eta abar egiteko) eta kafetegia. Erakusketa zintzilik dauden hiru kuboetan dago, eta, horrela, babestuta dago argitik.

**Zertan oinarritu zarete museoa egiterako orduan?**
Era honetako museo bakarra da munduan, diseinatzaile bakarrari eskainitako museo bakarra, alegia. Diorrek badu bat, baina oso txikia da, eta udan zabaltzen du soilik. Azkenaldian, diseinatzaile askoren erakusketak daude museoetan. Alexander McQueeni Metropolitan Museumen eskaini diotena, 141 urtean bisita gehien jaso duen zortzigarrena izan da. Jean Paul Gaultierrek egin zigun bisita, eta berak, Montrealen dauka erakusketa bat orain, eta Madrilen Yves Saint Laurent izango da.

> **“Nazioartean hemen baino ezagunagoa eta mirestuagoa izan zen Balentziaga”**

**Balentziaga bizirik balego, zer uste duzu pentsatuko lukeela museoari buruz?**
Balentziaga oso diskretoa zen, eta museoa handiegia irudituko litzaioke.

**Museoarekin batera, josten ikasteko eskola bat zabaltzea ere aurreikusi duzue. Noizko egongo da prest?**
Horretan dihardugu. Datorren urtean, hainbat ikastaro emango ditugu; horrela, probak egingo ditugu, diseinu-eskola prestatuz goazen bitartean.

**Zuk zeuk, moda jarraitzen al duzu janzterako orduan?**
Ez diot jaramon handiegirik egiten, nahiz eta batzuetan ezinezkoa den ez jarraitzea.

**Balentziaga museoa museo bat baino gehiago dela entzun dugu. Zer esan nahi duzue horrekin?**
Didaktikaren eta aisialdiaren alorretako ekintzekin publiko mota guztietara zabaldu nahi genuen museoa. Hau da, erakusketari hainbat ikuspuntutatik balioa eranstea zen helburua. Horrelako ekintza gehiago ere egingo ditugu: eskoletarako ikastaroak, lantegiak, gaueko bisitak eta afariak noiz behinka, behin-behineko erakusketak eta abar.

---

**Ainhoa Andonegi**

# Asto-kaka

ELGOIBARKO IZAR
KULTUR ELKART




Azken txartelak salgai!

## JANA ETA EDANA



Barixakuan 17:00etatik aurrera eta zapatuan 11:
Edatekoak, pintxoak eta razioak Leku

**Etorri, probatu**

A

A

## Urriak 14, ostirala

**22:00 KONTZERTUA**
(Leku Ederren)


















00etatik aurrera
derreko karpan.
eta gozatu!

## Urriak 15, larunbata

(Plaza Txikian-Leku Ederren)

**12:00 ASTO-KAKA JOKOA**

**14:30 Baba-jan herrikoia**

**17:00 Dantzaldi-erromeria, MP5 taldearekin**

**20:00etatik aurrera itxiera jaialdia**

**Eguaztena jai eguna izan da aste honetan. Aste barruko jai egun guztiak, zubi bilakatuko diren astelehenetara igarotzeko eskatzea aztertzen dihardute enpresariek.**

# Zer iruditzuko litzaizuke astebarruko jai egunak astelehenetara pasatzea?



**Aitor Azkue**
**26 urte, fisioterapeuta**

Jendearentzako erabilgarriagoa litzateke, eta alde horretatik, ados nago. Baina kontua da, zubiak tokatzen direnean, jendeak herritik alde egiteko erabiltzen dituela egun horiek, eta herria hustu egiten da. Beraz herriaren onerako ez dut uste izango denik, baina indibidualki ondo dago hori.



**Andoitz Agirregomezkorta**
**33 urte, administraria**

Beno, bi aukerek dauzkate beraien alde onak. Egun solteetan herrian ekitaldi bereziak egon ohi dira eta giro polita baina zubiek kanpora joateko edo planak egiteko aukera eskaintzen dute. Niri bi aukerak gustatzen zaizkit, beraz dagoen moduan lagata onduen.



**Jose Luis Odria**
**61 urte, teknikoa**

Bai, ez zait gaizki iruditzen. Jaiak beti datoz ondo, baina denak batera etorriz gero, orduan eta hobeto. Eguaztenetako jaiek lan-jarduna mozten dutela diote enpresariek eta egia da hori. Beraz, aldaketarekin denok irabaziko badugu, ez dago gaizki pentsatuta.



**Maite Ansola**
**38 urte, Correoseko langilea**

Bai. Nik neuk nahiago ditut jarraian datozen egunak egun solteak baino. Kanpora ateratzeko edo dena delakorako hobeto datoz. Eta gainera lanerako ere hobeto bada jai egunak horrela tokatzea, listo. Hala ere, jaiak jai, beti etorriko dira ondo eta beti hartuko ditugu beso zabalik.

## ■ SEMAFOROA



**Maltzagarako bide gorrian autoak egoten dira aparkatuta:** "Gezurra dirudi, baina hala da. Santa Ana kaletik Maltzagara doan bide gorrian autoak egoten dira aparkatuta, eta lotsagarria iruditzen zait. Han aparkatzen duten gidarien partetik sekulako errespetu falta dela uste dut, eta udaltzainek ere gehiago egin dezaketela iruditzen zait".

**Eskolako autobusarentzako ez da lekurik egoten Sigmako aparkaleku berrian:** "Eskolako autobusak umeak lagatzeko eta buelta hartzeko aparkalekua egokitu du Udalak Sigman, baina jendeak autoa aparkatzen du autobusarentzako gunean. Eskertuko genuke, mesedez, eskolako autobus gidariari lana erraztea".

**Udaltzaingoak gaztelaniaz idatzitako isuna jarri du:** "Ez da lehen aldia. Sarritan gertatu izan zait niri, eta ingurukoei ere bai. Gaztelania hutsean idatzitako isuna jaso dut eta ez zait ondo iruditzen. Langile publikoek euskaraz jakin beharko lukete eta horren arabera, beraien lan-jarduna euskaraz egin".


ELGOIBARKO UDALTZAINGOA
POLICIA MUNICIPAL DE ELGOIBAR



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
*barren@elgoibarkoizarra.com* 943 744 112

# Uxue Alberdi Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetarako sailkatu da

Lasarte-Oriako kanporaketan berak batu zuen puntu gehien

Joan den zapatuan Lasarte-Orian jokatu zen kanporaketa irabazita lortu du Alberdik txapelketan aurrera egitea. Ainhoa Agirreazaldegi, Iñaki Apalategi, Amaia Iturriotz, Oihana Iguaran eta Andoni Otamendi izan ziren bere bertso-aurkariak. Bigarren bukatu zuen Andoni Otamendik baino 19,5 puntu gehiago lortu zituen Alberdik. Puntuazioei begira jarrita, azpimarratu beharra dago, final-zortzirenetako saio guztiak kontuan hartua, Uxue Alberdi izan dela hirugarren onena.

Uxuek zapatuan lanak ondo eginagatik, hurrengo faserako txartela lortu zuen zuzenean. Hortaz, hurrengo urriaren 30ean Idiazabalen jokatuko den final-laurdeneako kanporaketan neurtu beharko ditu indarrak berriz ere.



### Mikel Markez-ekin kolaborazioa

Bertsotan ez ezik, kantuan ere trebea da Uxue, eta hala erakutsi digu Mikel Markezek atera berri duen diskoan egin duen kolaborazioan. Diskoari izena ematen dion “Hiri hartan izan zen” abestia kantatu baitu Mikel Markezekin eta Eñaut Elorrieta Ken7ko abeslariarekin batera.

## Euritan bustita baina parte hartze handiarekin igaro ziren Errosario kaleko jaiak







Pasa den asteburuko euriek, pilota partiduak eta herri kirolak bertan behera laga zituzten arren, makina bat jende gerturatu da Errosario kaleko jaietara. Zezentxoekin, txarangarekin dantzan (goiko argazkian), igelaren jolasean (goiko argazkian), edo salbean; jai-girorik ez da falta izan. Hauek zira errifen zenbaki sarituak: 1- 0446 (erreserba: 0598); 2-2849 (erreserba: 1845); 3- 2098 (erreserba: 0927).

### Haizea emakume taldearen ikastaroak

Artea eta literaturaren inguruko hitzaldiak antolatu ditu Haizea emakume taldeak datorren asterako. Hilaren 17an, astelehenean, Artea eta Aristoteles izango dituzte mintzagai Kultur Etxean 17:00etatik 19:00ak bitarteko tailerrean. Martitzenean berriz, liburutegian izango da tailerra 18:00etatik 20:00etara eta *El mundo de Sofia* liburua aztertuko dute.

### Kultura saila barkamen eske

Pasa den domekan “Galtzagorriei to, Inaxito!” antzezlanera joandako hainbat herritarri sarrera kobratu zitzaien, eta horiei barkamena eskatu die kultura sailak; Kutxaren babesari esker, dohainik zen-eta antzerkia. Hortaz, hurrengo antzerki baterako gonbidapenak eskatzera joan daitezke, domekan sarrera ordaindu zutenak.

# Sanloko hamar jokalari deitu dituzte Euskadiko selekzioarekin entrenatzeko

## Infantilak, kadeteak eta jubenilak dira deitutako jokalariak

Nerea Solozabal, Alaitz Egaña, Ane Gallardo, Leire Arizmendi, Ainhoa Urbizu, Nora Kortaberria, Ainhitze Etxeberria, Zuriñe Konde, Garazi Osoro eta Xabier Larrañaga dira aste honetako Euskadiko Selekzioko entrenamenduetara joateko deitutako eskubaloi jokalariak.



### Spinning gela berria inauguratuko dute gaur Mintxetan

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, gaur, iluntzeko 19:00etan inauguratuko dute Mintxetan egin duten Spinning gela berria. Estreinaldirako, bi orduko spinning saio berezia antolatu du Patronatuak. Gela berriak 110 metro karratu eta 40 bizikleta dauzka, eta baita ikus-entzunezkoetarako pantaila handi bat ere. Gela berriari baina, erabilera berriak ere eman nahi dizkio Kirol Patronatuak. Izan ere, azarotik aurrera *Walking* izeneko ikastaro bat jarriko dute martxan. *Eliptika* deritzoten aparatuekin egiten da jarduera hori, eta bereziki mendian edo iraupen eskian dihardutenentzat da gomendagarria.

### Egoitz Morak irabazi du Irungo nazioarteko judo torneoa

Borrokaldi ugariren ostean, Egoitz Mora elgoibartarra izan zen Irungo San Martzial nazioarteko judo torneoko irabazlea.



## Bost elgoibartarrek hartu dute parte Euskadi Extrem BTT proban



*Igor Torres (ezk.) eta Iker Panizo.*

Joan den asteburuan Labastida eta Bilbo artean egindako 177 Km-ko BTT proban hartu zuten parte Koro Gabiolak, Iñaki Iraolak, Gotzon Arrietak, Igor Torresek eta Iker Panizok. Bi egunetan banatuta egin behar izan zuten ibilbidea. Lehenengo egunean, Labastidatik Orduñarainoko 114 Km-ko bidea egin behar izan zuten, eta bigarrenean, Orduñatik Bilborainoko 63 Km-koa.

## Elgoibartarrak Behobia-Donostiarako motorrak berotzen



Donostiako hiru hondartzak batzen dituen 10 Km-ko krossak, korrikalari ugari batzea lortu zuen eta, tartean, berrogeita bat elgoibartarrek hartu zuten parte. (*www.elgoiBARREN.net* atarian daukazue sailkapenak)

### Lendinez bigarren Arrasate-Oñati lasterketan

Nerea Arregi arrasatearrak irabazi zuen proba emakumezkoetan nahiz Ainhoa Lendinez irabaztetik gertu ibili. Batera egin baitzuten Arrasatetik Oñatirainoko bidea, baina sprintean bi segunduko aldea atera zion Arregik Lendinezi. Denera zazpi elgoibartarrek hartu zuten parte, eta denak ere maila ona erakutsi zuten egindako lanean. (*www.elgoiBARREN.net* atarian daukazue sailkapenak)

# Lazkano eta Rojo irabazle, San Pedrora bizikleta eta rolleski igoeretan

## 61 lagunek parte hartu zuten bizikletan, eta 24k rolleskian



*Joseba Rojok irabazi zuen rolleskian*



*Iñigo Lazkano, igoerako azken zatian*

Julian San Juanen Oroimenezko XVII. San Pedrora Igoera eta I. Rolleski Igoera jokatu zituzten, joan den eguaztenean. Lagun Taldeak antolatutako bizikletako proban 61 lagunek parte hartu zuten eta Iñigo Lazkanok irabazi zuen proba, bigarren urtez jarraian. Mendaroarrak 14 minutu eta 17 segundoan egin zuen Plaza Handitik Idotorberainoko bidea. Emakumezkoetan errekor berria (17:40) ezarri zuen Ainhoa Lendinezek. Bestalde, Morkaikok antolatutako I. Rolleski Igoeran Tolosako Joseba eta Imanol Rojo anaiek erakustaldia eskaini zuten. Anaia gazteak, Josebak, 18 minutu eta lau segundotan egin zuen 3,9 km-ko igoera. Arkaitz Irureta elgoibartarra sailkatu zen hirugarren postuan. Guztira 24 lagunek parte hartu zuten proban. (Sailkapen eta argazki guztiak *www.elgoiBARREN.net* atarian)



# EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 0 – Laudio 3 (3. maila)

Elgoibar 1 – Mondragon 0 (Ohorezko maila)

Elgoibar 4 – Ikasberri 3 (Ohorezko jub.)

Arrasate 1 – Elgoibar 2 (Ohorezko inf.)

Elgoibar 1 – Aritzmendi 4 (Neskak)

### ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 22 – Ilunpe 21 (1. mailako nag.)

Mundarro 22 – Lagunak 11 (2. mailako nag.)

Lagunak 7 – Aurrera Saiaz 22 (1. mailako jub.)

Pala

Lagunak 25 – Altzatarra 22 (2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Kirol Sport 1 – Concepto Egile Elg. 2 (2B)

### ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 32 – Deusto Loy 29 (Sen. mut.)

Kukullaga 25 – Tecnifuelle Elg. 28 (Sen. nesk.)

Beristain Elg. 26 – Amenabar 20 (Jub. mut.)

Lauko Elg. 31 – Pulpo 19 (Jub. nesk.)

Amenabar A 23 – Grupo Eibar Elg. 31 (Kad. mut.)

IMH Elg. 21 – Pulpo 14 (Kad. nesk.)

Aloña Mendi 18 – Astigarraga Elg. 26 (Kad. nesk.)

Federopticoas Ikus Elg. 29 – Bera 6 (Inf. nesk.)

Aterpe Elg. 30 – Bera 1 (Inf. nesk.)

# AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 15

11:30 Elgoibar – Soraluze (Kad.A)

11:30 Elgoibar – Zumaiako (Neskak)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 15

11:15 Bankoa – H.Txarriduna (Inf. nesk.)

12:30 Ikus Elg. – Aterpe (Inf. nesk.)

16:30 C. Astigarraga – Ordizia (Kad. nesk.)

18:15 Tecnifuelle – Muskiz (Sen. nesk.)

20:00 Alcorta – Corazonistas (Sen. mut.)

### ESKU PILOTA

Barixakua, 14

21:15 Lagunak – Intxaurre (1. mailako jub.)

21:45 Lagunak – Bergara (2. mailako nag.)

22:30 Lagunak – Igeldo (1. mailako nag.)

Zapatua, 15

12:00 Lagunak – Igeldo (Pala, 2. mailako nag.)

## LANA

**ESKAERA**

• Emakumea edozein lan egiteko prest. Papelak araututa ditut. ☎ 697 649 399
• Gizona txofer edo banatzaile lanetarako prest. ☎ 697 649 399
• Lehen hezkuntzako magisteritza duen neska, LHko partikularrak emateko prest. ☎ 637 258 819
• Ingeleseko partikularrak ematen ditut. Bakarka edo taldeka. First mailara arte. ☎ 626 419 354
• Emakume euskalduna umeak zaintzeko prest. 16:00-19:00. ☎ 687 693 290
• Lana behar dut. Zaintzan eta garbiketan esperientzia daukat. ☎ 689 847 947
• Zaintza edo garbiketa lanetan orduka aritzeko prest. ☎ 638 527 489
• Interna edo orduka, zaintza eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 638 153 016
• Emakumea orduka lana egiteko prest. ☎ 636 581 194
• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, elkarteak , etxeak edo lokalak garbituko nituzke ☎ 630 372 882
• Emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ 699 232 823
• Gizonezkoa tabernan zerbitzari edo eraikuntzan lan egiteko prest. ☎ 689 974 001
• Emakumeak interna edo orduka lan egingo luke. Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 699 813 826
• Gizonezkoa lan bila. Baserri lanetan eta erainkuntzan esperientzi handia. ☎ 685 212 060
• Emakumea pertsona nagusiak zaintzen orduka lan egiteko prest. ☎ 685 212 060
• Mutil arduratsua eta esperientziaduna, tabernan lan egiteko prest. ☎ 692 332 871
• Neska lanerako prest. Etxeko lanetan eta umeak nahiz nagusiak zaintzen esperientzia. ☎ 638 153 016
• Emakumea lanerako prest. Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. ☎ 608 474 923

## ETXEBIZITZAK

**ALOKAIRUA**

• Logela bakarreko apartamentua alokagai Errosario kalean. Altzariekin. ☎ 629 415 984 (18:00etatik aurrera)
• Alokairuan pisua hartuko genuke Elgoibarren. Senar emazteak eta hiru seme-alaba. ☎ 689 847 947

**SALMENTA**

• Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ 648 191 076
• Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldea altzariekin. ☎ 676 404 365 / 669 621 164

## BESTELAKOAK

• Kanarioak ihes egin du Ubitarte inguruan. Anila horia dauka. ☎ 647 704 399

## KINTOAK

• 1986an jaiotakoen afaria. Azaroak 12an, polikiroldegian. 35 euro. Urriak 27 baino lehenago sartu dirua kontu korronte honetan: 3035 0007 28 0070055133

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**
**Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)**
**Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro**
Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.








• Zorionak, **Javier**, urriaren 3an urteak betetzearren. Musu asko zure aitona Roman, amona Palmira eta zure amaren partez.



• **Maneeexxx!**, Zorionak mutil haundi! Igandean 4 urte. Ondo pasatu eta muxu handi bat Maddi eta beste guztien partez.



• Zorionak, **Trini**, urriaren 18an 87 urte egingo dituzulako. Lagunen partez, ondo pasa.



• Zorionak, **Danel**, bihar 6 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Julen**, igandean 4 urte beteko dituzulako. Musu handi bat etxekoen eta bereziki Mirenen partez.



• Zorionak, **Ekaitz**, gaur 7 urte egin dituzulako. Musu pila bat familiakoen eta bereziki Luken eta Izairen partez.



• Zorionak, **Dibina!** Olatu eta zurrunbilo artian, segi ingurukuok bustitzen!



• Zorionak, **printzesa**, dagoeneko urtebete. Segi orain arte bezain alaia izaten. Oinatz eta Markelen partez.



• Zorionak, **Ugaitz**, etxeko errege, zure lehenengo urtebetetzean, aita, ama eta etxekoen partez.



• Zorionak, **Oier Arriolari**, urriaren 13an hamaika urte egin dituelako eta patxo haundi bat Xabiren partez.

**Erretratu bakarreko agurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.**
Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguazten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.
BARRENeko bulegora 12:00ak baino lehen, edo *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali.

Urriaren 19an, asteazkenean, **GURASO BILERA** ludotekan 19:30ean zerbitzuaren ildo nagusiak azaltzeko. Zain gaituzue.

Domeka honetan, urriak 16, **MORURA IRTEERA** eta **HAMAIKETAKOA.** 10:00etan Plaza Handian elkartuko gara.

# OSASUN GIDA

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

*Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.*
(Pisu kontrola ,"Dieta erraza", Bach loreak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak, masajeak, doitze neurologikoa, astrologia medikuntza eta hipnosia). Familia konstelazio tailerrak. Naturopata, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta.
San Bartolome, 29
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

*Sanatana Dharma Yoga Elkartea*
Anginei aurre egiteko masajea.
Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30
*Mendaro:*
Astelehen eta asteazkenetan:
15:00-16:30

## ORTOPEDIAK

*Itziar Sarasketa*
San Frantzisko, 12
Tel: 943 74 35 62
Egunero:
9:30-13:00 /17:00-20:00

## MASAJISTAK

*Victoria Iraegi*
(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).
San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

## PODOLOGOAK

*Oinberri*
Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

*Iñigo Arrillaga Yudego*
- Hanken afekzioen terapia.
- Neurrira egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko, 20 behea
Tel: 943 741 645
Ordutegia:
9:30-13:30 /15:30-19:30

## FISIOTERAPIA

*Ainhoa Fisioterapia*
Jausoro, 6 behea.
Fisioterapia eta osteopatia.
Tel.: 943 531 953
669 565 745

*C.R.F. erreabilitazio zentroa*
(Partikularrei eta seguruen bidezko tratramenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.
San Inazio, 2
Tel.: 943 743 374
Astelehenetik ostiralera:
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

## OPTIKAK

*Ikus optiko-optometrista*
San Bartolome, 10
Tel: 943 743 734
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

*Uzuri*
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 740 359
Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

## HORTZ KLINIKAK

*Irale*
Errosario Kalea, 7 behea
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
*irale@irale.com*
*www.irale.com*

*Leku eder*
- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Harrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo medikua
Aita Agirre enparantza,
5 behea.
Tel: 943 530 053
*lekueder@infomed.es*

*Beitia Arriola*
- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869




## 14 barixakua

### Aisialdia

17:30 **Kiribilka Leku-Ederren**
Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa.

### Asto-kaka leku ederren

17:00 **Karparen irekiera**
18:30 **Trikitilariak**
20:30 **Afari-mokadua**
22:00 **Kontzertua**

## 15 zapatua

### Asto-kaka leku ederren

11:00 **Karparen irekiera Leku-Ederren**
11:00 **Astokaka jokoa Plaza Txikian**
14:30 **Baba-jan herrikoia**
17:00 **Dantzaldi-erromeria Mp5 taldearekin**
20:00 **Baba-jokoaren zozketa**

## 16 domeka

### Musika

12:30 **Udal musika bandaren kontzertua**
Herriko Antzokian. Zuzendaria: Txomin Mugika.
1. *Nuestras bandas de musica* (F. Andreu).
2. *Pique dame* (F. von Suppe)
3. *El principe Carnaval* (J. Serrano)
4. *The godfather saga* (Nino Rota)
5. *Latin american fever* (H. Kolasch)

## 18 martitzena

### Hitzaldia

19:30 **"Nola hobetu bizi-kalitatea modu naturalekin"** hitzaldia Kemen Belardendan. Izena emateko: 943 744 031

## 19 eguaztena

### Hitzaldia

18:00 **"Genero betaurrekoak baditugu?"**
Debegesak antolatuta, emakumeentzako jabekuntza saioen baitan. Kultur Etxean.

## 20 eguena

### Bilerak

19:30 **Herri Bilkura**
Bilduk antolatutako bilera, zerga eta tasak aztertzeko. Kultur Etxeko sotoan.

20:00 **Zubibai Elkartearen bilera**
Altzolako zuhaitzen mozketa aztertzeko auzotarren bilera.

---

**FARMAZIAK** (24 orduz)

| | |
|---|---|
| 15 | Yudego |
| 16 | Yudego |
| 17 | Zabaleta |
| 18 | Fernandez |
| 19 | Ibañez |
| 20 | Garitaonandia |
| 21 | Ibañez |
| 22 | Fernandez<br>Arratsaldez: Etxeberria *(Erros.)* |

**OKINDEGIA**

16 domeka IBARRENEA

**Fernandez**- Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

**Ibañez**- Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

**Zabaleta**- Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

---

**ZINEA**

**«El origen del planeta de los Simios»**
14, barixakua: 22:15
15, zapatua: 19:00/22:15
16, domeka: 19:00
17, astelehena: 21:30

**«Kung fu panda 2»**
16, domeka: 16:30

**«Ongarri Zine Kluba»**
20, eguena: 21:30













# estetika
## gehigarria



**Udan hartutako eguazkiak arrastoak laga dizkigu azalean. Deshidratazioa, orbanak edo azal sentsiblea sortu dizkigu udako jardunak eta horri irtenbidea eman beharrean gaude. Horretarako, hemen dituzu Elgoibarko edergintzako profesionalen aukerarik onenak.**





# Jaten duguna gara



Tentsioak, estresa… gure organismoa aldatzen duten egoerak dira, horregatik ondorioak aurkitzea eta kontrolpean izatea garrantzitsua da.

Judith edergintzak terapia hauek aurkezten dizkizu:

- Elikadurari intolerantziaren test-a + dieta pertsonalizatua
- Likido-erretentzioentzako terapia
- Pisua jaisteko terapia
- Gorabehera hormonalak zuzentzeko terapia
- Erretzeari usteko terapia
- Antsietatea, insonioak,…





Egunean ordu bete ibiltzea, edo ariketa fisikoak egitea eta elikadura orekatu bat eramatea, ongizatea lortzeko beharrezkoa da.

Judith edergintzak, azken teknologiadun aparatuekin egiten du lan, diagnostiko perfektuak burutzen ditu eta edozein egoerari aurre egiteko tratamenduak eskeintzen ditu.

## Zerbitzuak

- *Diodo Laserra*
- *Depilazioa (beroa eta hotza)*
- *Gorputz tratamenduak*
- *Erditzearen ondorengoa*
- *Argaltzeko Masajeak*
- *Erlaxatzeko tratamenduak*
- *Oparitzeko tratamenduak*
- *Aurpegi tratamenduak*
- *Makillajea*
- *Betileetako permanentea*
- *Manikura*
- *Neurrirako dieta, mantentzea eta jarraipena*

**URRIAK 21ean ATE IREKIETAKO JARDUNALDIA PERTSONAL ESPEZIALIZATUAREKIN!**

**Deitu ezazu zure txanda hartzeko!**

- Ez duzu zure krema aurkitzen?
- Ez duzu zure azala ondo ikusten?
- Ez dakizu haurdunaldi osteko orbanak nola kendu?
- 40 urte eta granoak dauzkazu?

- Orbanak
- Zimurrak
- Markak, orbainak
- Deshidratatzea
- Aknea
- …

Galdera hauek eta gehiago erantzuteko deitu
943 742 950 zenbakira

**AUKERA PAREGABEA, DOAN DA!**

Judith
EDERGINTZA

Astelehenetik larunbatera
(ostiral egurdietan zabalik)
Errosario kalea,19
Tel.: [illegible]
Mutil zein neska




Txartelak aurrez salgai urriak 17tik aurrera (astelehena) hurrengo lekuetan:

PITXINTXU
GARATE JANTZI DENDA
ITURRI TABERNA
LANBROA TABERNA

Kontzertu egunean (urriak 27), azken 100 txartelak salgai txarteldegian 18:30etatik aurrera. (Kontuz: gehienez 2 txartel pertsonako salduko dira egun honetan)

**Salneurria: 25€**